


IDAZLAN LUZEA | *Iritzi-artikuhua* |

Zoriontasuna
Noren esku?





Gidoirako

Norberaren esku

- Izaera eta jarrera: zorionaren oinarri
- Irribarretsuenak: Hirugarren Munduko herriak, garatu gabeak...
- Baikor: geure buruarekin pozik, egunekoari heldu, nahigabeak onartu, egokitu...
- Diruak, zoriontasun gutxi; aberatsak, gehiago nahi
- Maitasuna, lagunak, bizipoz txikiak, natura, ariketa fisikoa...

Bizitokiaren arabera

- Bizitokia eta bizimodua: zorionaren gakoak
- Zorionsuenak: herri garatuak, askeak, oparoak, baketsuak...
- Ingurune erosoak: bizikaltatea, hezkuntza, osasuna, oinarritzko eskubi-deak...
- Baldintza erakargarriak: lana, dirua, aukerak, helburuak...
- Pozik egoteko: etorkizun ziur eta itxaropentsua



Aberast- Gizarte Bizi- Erabaki- Esku- Beste
suna laguntzak itxaropena mena zabaltasuna batzuk



Iturr.: Columbiako unib. 2016



IDAZLAN LUZEA / 1

AUKERATUTAKO GAIA

*Zoriontasuna noren esku?*Aztertzaila-
rentzat

250 hitz gutxienez

Aztertzaila-
rentzat

Ort.

Antzina antzinatik izan dira arazoak mundu honetan, batzuk larriak eta beste batzuk ez horrenbestekoak, baina onartu beharra dago kezka bizitzaren parte direla, eta ez dagoela horiek gabe bizitzerik. Gaur egun, berriz, gizartea inoiz baino liskar gehiago pairatzen ari da. Eta klase guztietakoak, bai gatazka pertsonalak, bai gobernu indartsuenen arteko tira-birak.

Ort.

Presaka ibili ohi gara handik hona eta hemendik hara, lana eta ikasketak direla medio, eguneroko gauza txikiez gozatu gabe. Beste alde batetik, onartu behar dugu gero eta gehiago eskatzen digutela, [hala lanean nola ikasketetan. Eta bizitzako esparru guztietan!] Izan ere, garaiak aldatzen ari dira, egunero ohartzen gara munduak oso itxura modernoa hartu duela: elektronikak gero eta indar handiagoa du, hizkuntzak jakitea inoiz baino garrantzitsuagoa da... [Hortaz, ondo deritzot arestian aipatutako eskatu behar horri.] Garaiak aldatzen ari direnez gero, alda ditzagun gure jokabideak.

Lot./Kohs.

P./Lot.

Kohs.

Punt.

Hala ere, aldatu behar hutsak ez du esan nahi zorigaitzokoak izatera behartuta gaudenik. Zeren zorionak, beste gauza ororen gainetik, norberaren izaera eta jarrera ditu oinarri. Adibidez, arazo baten aurrean jarrera ezkorra baduzu, ez dut uste konpontzeko gauza izango (izango) zarenik. Aldiz, zure jarrera baikorra bada, zeure buruan sinistu eta egokitzeko ahalegina egiten baduzu, arazoa huskeria (bat) irudituko zaizu. Ikus bestela zer gertatzen den Hirugarren Munduko herrialdeetan: beste inork baino arazo larriagoak dituzte eta munduko herririk irribarretsuenak omen dira.

Kohr.

[Herrialdeak aipatzen hasi naizenez gero, egia da tokiaren arabera arazo larriagoak edo txikiagoak izaten direla.] Izan ere, herrialderen aberastasunak, gizarte laguntzek edo bizi-itzaropenak lagundu egiten digute zoriontsuagoak izaten. Esate baterako,

Dek./Mugg

Aztertzaiela-
rentzat

Aztertzaiela-
rentzat

Erref.

Lex.

Danimarka, Suitza, Islandia, Norvegia, Finlandia, Kanada, Herbehereak, Australia eta Suedia omen dira hamar herri zoriontsuenak. Herri horietan asko garatu dituzte hezkuntza, gizarte laguntzak, altruismoa... bezalako esparruak. Gainera, herrialde [hauek] adibide bikaina dira, diruak ez baitu dena erosteko indarrik. Bestela balitz, AEB, Alemania edo Japonia izango lirateke zerrenda horretako liderrak. Beste bitxikeria bat: badirudi herrialde zoriontsuenen artean iparraldekoak direla gehienak. Harrigarria, ezta? Agian herrialde epelagoetan bizi garenok ez gara guk uste bezain zoriontsuak!

Laburbilduz, zoriontasuna ez da diruarekin lortzen, ez dago presaka ibili beharrik; zoriontasuna lortzeko orduan herrialdeak zerikusia izan arren, jarrera da benetan funtsezkoa ^Fegokitzen jakitea eta baikor agertzea arazoan aurrean.

PROBA IDATZIA IDAZLAN EREDUAK IDAZLAN LUZEA

Kalifikazioa: 7,5

**Aztertzaileen zehaztasunak: +: 1, 2, 3, 5, 15
-: 4, 7, 10**

EGOKITASUNA/EDUKIA: 2,5

Atazak eskatzen diona ongi betetzen du. Gaiaren gaineko hainbat alderdi landu ditu eta adibideekin eta datuekin osatu ditu.

MOLDEA, KOHESIOA ETA KOHERENTZIA: 2,5

Sarrera eta ideien garapena, onak. Bukaera, apalagoa.

Bere iritzia emateko, zenbaitetan, aditzaren lehen persona erabili du eta naturaltasunez txertatu du idazlanean. Hartzaileari keinuak egin dizkio: "Harrigarria, ezta? Agian, herrialde epelagoetan bizi garenok ez gara guk uste bezain zoriontsuak!"

3. paragrafoan "zuka" erabili du: "arazo baten aurrean jarrera ezkorra, baduzu, ez dut uste konpontzeko gauza izango zarenik...". Nahasgarria izan daiteke, gainerakoetan lehen eta hirugarren persona erabili dituelako.

ZUZENTASUNA: 2,5

Ia ez dago akats gramatikalik. Esaldien egituraketa zuzena da, eta hitzen ordena ere naturala eta egokia da.